

HITZ BITAN

EUSKARA. Kontseiluak «eredugarritzat» du ELAY

ELAY enpresa taldeak jaso du lehendabiziko 'Guk zerbitzua eta lana euskaraz' ziurtagiria

Ekaitz Sirbent | DONOSTIA

ELAY enpresa taldeak Kontseiluaren *Bai Euskarari Ziurtagiria Guk Zerbitzua eta Lana Euskaraz* eskuratu zuen atzo, Donostian. Ziurtagiria emateko ekitaldian izan ziren Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia, Roberto Gutierrez *Bai Euskarari Ziurtagiria*-ren arduraduna, Santi Zabaleta ELAYko kontseilari ordezkaria, Isidoro Blanco ELAYko langileen ordezkaria, eta enpresaren euskalduntze planari laguntza teknikoa eskaini dioten Elhuyarrek teknikari Miel Guridi eta Elhuyar Fundazioko lehendakari Inaki Irazabalbeitia.

Gizarte eragileek euskararekin hartutako konpromisoaren adierazlea da ziurtagiria, eta,

Kontseiluak egiten duen konpromiso prozesu horren jarraipenaren bidez, *Bai Euskarari Ziurtagiria*-ren bitartez kreditatzen ditu gizarte eragileek euskararen normalizazio bidean egiten ari diren urratsak.

Bai Euskarari ziurtagiri mailak

Ziurtagiriak, baina, hiru maila ditu: *Bidean* izenekoa 229 eragilek dute, eta euskararen normalizaziorako gutxienezko neurriak hartzen eta garatzen ari diren erakundeei zuzendua dago. *Guk Zerbitzua euskaraz* ziurtagiria dutenak 42 dira, eta zerbitzua euskaraz eskaintzen duten erakundeei dago zuzendua. *Guk Zerbitzua eta Lana euskaraz* ziurtagiria duen erakunde bakarra, azkenik, atzo saritutako ELAY enpresa taldea da, eta, aurreko-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendiguren, ELAYko Santi Zabaleta kontseilari ordezkariari eta Isidoro Blanco langileen ordezkariari ziurtagiria ematen.

en baldintza guztiak betetzeaz gain, barne harremanak ere euskaraz egiten dituzten eragileei dago zuzendua.

Mendigurenek talde osoari zorian eman ondoren, azken urteotan egindako lana «eredugarria» dela azaldu zuen. «Ezi-

nezkoa da kalitatezko zerbitzua bermatzea euskara bazterrean utzita. Enpresek ere badakite euskarazko zerbitzua eskaini ezean hanka-motz dabilatzala, eta hemen inork ez du atzean geratu nahi», gaineratu zuen.

ELAYk duela hamar urte ekin

zion euskalduntze planari, Elhuyarren laguntza teknikoarekin. Miel Guridi teknikariak azaldu zuenez, «funtsezkoa izan da enpresa osatzen duten giza talde osoaren adostasuna eta konpromisoa eta zuzendaritzaren ahalegin handia».

ABIADURA HANDIKO TRENA

Bihar hasiko da AHTren aurkako 7. kanpaldia, Arriben

AHTren aurkako 7. kanpaldia egingo dute bihartik abuztuaren 4a arte, Araitz bailaran, Lekunberri (Nafarroa) eta Tolosa (Gipuzkoa) artean. Arribera bilduko diren ehunka lagunek abiadura handiko nafar korridorearen aurka egingen dute protesta, eta bide batez, egunegun antolatzen diren hamaika ekitaldietan, kontzertuetan, mendi martxetan eta hitzaldietan parte hartzeko aukera ere izango dute. Azken sei urteotan egin bezala, kanpaldia «aldarrikapen, borroka, esperientzien trukea eta harremanak estutzeko bilgunea» izatea nahi dute antolatzaileek.

HEZKUNTZA

Jaurlaritzak 872.000 euro bereiztea onartu du, ikastola pribatuetako langileen soldata besteekin parekatzeko

Eusko Jaurlaritzak 872.000 euroko diru saila onartu zuen atzo, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko ikastola pribatuetako langileen soldata beste ikastetxe pribatuetako langileen soldatekin parekatzeko. Diru horretatik 165.247 euro Eusko Ikastola Batzarentzat (EIB) izango da. Bestalde, Partaide eta EIB ikastola elkarteentzako beste 1.808.655 euroko partida erabaki zuen, haur txikiak ere ingelesa ikasteko Eleanitz programa diruz laguntzeko. Azkenik, euskarazko testu liburuentzako Isaac Lopez Mendizabal lehiaketaren deialdia egitea ere onartu zuten Jaurlaritzaren Gobernu Batzordean.

EHUko irakasleak kontratatze dekretoa onartu du Jaurlaritzak, LOUa egokituz joateko

Espainiako Gobernuaren Unibertsitate Lege (LOU) berria dela eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dekretua onartu du, 2002-2003ko ikasturtean unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko. Hezkuntza Sailaren arabera, kontratazio politika «berritzaile eta malgua» da erabakitakoa, baina behin-behinekia izango da. Izan ere, LOUk unibertsitateko irakasle eta ikertzaile figura berriak definitzen ditu, eta horien habilitazioa egiteko kalitate eta kreditazio organoa sortu behar du Espainiako Gobernuak. Organo hori sortu ez denez, Eusko Jaurlaritzak aurtengo ikasturteko beharrei erantzuneko dien Dekretua onartu behar izan du. Horren bidez, ordezkapenak egingo dituzten irakasleak, titulazio berrietarako irakasleak eta Euskararen II. Normalizazio Planerako behar diren irakasleak kontratatuko dira.

EUSKARA

PP, PSE-EE eta UA udal taldeen jarrera «euskararen aurkakoa» dela dio EHEk

Gasteizko Euskal Herrian Euskaraz elkarteak PP, PSE-EE eta UA udal alderdien jarrera salatu du, euskararen normalizaziorako lan taldearekin gertatutakoa dela eta. Alderdi horien jarrera «euskararen aurkakoa» dela eta euskaldunon eskubideak ez dituztela onartzen salatu du. Euskararen lan taldearen inguruan, euskararen aldeko elkarteekin bildu nahi ez izatea eta eztabaidarako aurkeztutako txostenaren kopia ez ematea egotzi die EHEk udal talde horiei.

DROGA

Hiru hileko baldintzapeko espetxeratzea agindu dute bi gazterentzat, festa batean kontsumoa errazteagatik

2000. urteko azaroaren 19an, Azkaineiko tekno gau batean 22 urteko mutil batek droga azkarrak hartu, koman sartu eta ospitale-eraman zuten. Gaua antolatu zuten bi gazteek hiru hilabeteko baldintzapeko kartzelatzea bete beharko dute. Baionako Auzitegiak leporatzen die bi antolatzaileei, Azkaineiko Herriko Etxeari gela bat galdegitean, besta nolakoa izanzen zen ez zutela abisatu. Horrez gain, droga kontsumoaren aurka ez zutela ezer egin eta erraztu egin zutela egotzi die.

GARRAIOA

Gipuzkoako eta Bizkaiko A-8ko bidesaria bera izango dela dio Basozabalek

Jose Felix Basozabal Bizkaiko Garraio diputatuak atzo esan zuen A-8ko Bizkaiko eta Gipuzkoako bidesaria «berbera» izango dela, eta diputazioen arteko akordioa aldarrikatu zuen.

REALARENTZAT ASTOREK BURUTURIKO KOLEKZIO BERRIA



Datorren denboraldirako eta makina bat ikerketaren ostean, Realak, Astorek xehetasun oro kontutan izanik buruturiko ekipazio berriaz gozatuko du. Ekipazioan, txuri-urdin koloreen arteko koordinazioa dela eta, Realaren betiko irudiaren ildo nagusiak isladaturik aurkitzen dira. Kontzeptu berri baten parte izanik, eskulabak eta funtzionalak diren fibrei arreta berezia eskaini diegu arroparik onenak eskaintzeko erronkan, izan ere, fibra hauek, atletaren mikroklima hobetzeko pentsatuak daude modu honetan, goi mailako lehiaketan errendimendua areagotzeko.

Lehen eta bigarren ekipazioetako kamisetentzako Dry-Clim oihalaren belaunaldi berria erabili dugu orain arte ezagutu ez den arintasun bat izaki, 115 gr/m². Kirolariak mikroklima hobetzeko gozatuko du eta maila altuko lehiaketan errendimendua hobetuko du, izan ere, oihala osatzen duten mikrozentzek, gorputz izerdia xurgatu eta kanporatzen dute gorputz hezetasuna kontrolatuz. Modu honetan erosotasuna eta freskotasuna ziurtatuak daude. Dry-Clim oihalak babes immunologikoa eta bakterien aurkakoa beregain ditu, honela kirolariaren higie pertsonala hobetuz.

Lehen ekipazioko kamisetako diseinuan aldaketa batzuk burutu ditugu, beti ere, Realaren betiko irudiaren errespetatuz, marra bertikal txuri-urdinak babestuz. Datorren denboraldirako, eta aurreagoko diseinuetan oinarrituz, marra estuagoak burutu ditugu, gainera, lepoaren egitura ere izan da egokitzeko.



Ekipazioaren patroia sakonki ikertu dago erabateko erosotasun eta gorputz egokieran mugimendua errazteko.

Entrenamendu atalean Dry-Clim oihala gehitu dugu. Motzean, transpirabilitate eta arintasun gehiago lortzeko, kamiseta zein prakak Dry-Clim oihalez burutu ditugu. Koloreen arteko uniformitatea eta oihala berriaren abantailak azpimarratzeko oso ondo koordinatua dagoen konjuntua honetan. Entrenamendu luzerako jertsea nahiz prakak kotoi/poliester erresistentez daude eginak. Elkarren artean ondo koordinatzen diren arropak dira guztiak.

Paseorako txandala, praka luzea eta motza mikropanazkoak dira. Duela urte batzuk Astorek oihala erresistente eta atsegin honen alde apustu egin zuen eta kirol merkatuan barneratu zuen. Diseinuari dagokionez, Realen dagoeneko instituzionalak diren betiko kolore urdina eta txuria ditu. Paseorako kamiseta % 100 kotoiz dago burutua.

Donostian, 2002ko Uztailaren 17an



rik, izan ere, itxura biribila eman diegu. Bigarren ekipazioa burutzeko kolore gorrian oinarritu gara oso erakargarria eta gaurko bateritza. Praka poliester mikrozentzekoa da, oso arina eta transpiragarria eta gaitzardiak eremu txiki elastiko batzuk dituzte presiorik gabe eutsi daitezkeen.